

Zergatik egon inprimatu zain?

Autoedizioaren munduan fitxategiak (dokumentuak, liburak, hiztegiak, etab.) inprimatzea izaten da askotan lanik aspergarriena.

Macintosh ordenadorea adibidez, inprimagailuaren menpe geratzen da eta honek bukatzen ez duen bitartean ezinezkoa izaten da lanean jarraitzea. Inprimagailua sare batera konektaturik baldin badago, zer esanik ez; norbere fitxategiak inprimatu zain egoteaz gain, beste Macintosh-etatik bidalitako fitxategiak inprimatu arte itxaron beharko bait da lanari jarraitpena eman ahal izateko.

SuperLaserSpool izan daiteke kasu hauetan irtenbidea. Programa honek segundo batzuk besterik ez ditu behar inprimatu nahi den fitxategia inprimaketa-ildan gordetzeko. Hau egin ondoren, berak hartzen du inprimaketa-prozesuaren ardura Macintosh-a beste lan batzuetarako libre utziz.

Adibide modura zera esan genezake: LaserWrite inprimagailu batean 22 orrialde dituen dokumentu bat inprimatzeko 17 minutu behar dira. *SuperLaserSpool*ek aldiz 40 segundo nahikoa ditu fitxategi hau ildan jartzeko.

Bestalde, *SuperLaserSpool ImageWriter*-ekin nahiz *LaserWriter* edo *Postscript* lengoaiak baliatzen den beste edozein inprimagailurekin erabil daiteke, eta oso erabilterraza da gainera. Programa honek, fitxategiak inprimaketa-ildan sartzerakoan sortzen dituen fitxategiak oso konpaktoak dira, antzeko beste programa batzuk sortzen dituztenekin konparatzen badiugu. Ezaugarri honeko, disket-unitateak besterik ez dituztenetaz ere programa erabilgarria egiten du. Une bakoitzean inprimaketa-ildan dauden fitxategiak ikusteko aukera ere ematen du, eta ez hori bakarrik, baita hauen ordena aldatu, fitxategiren bat ildatik kendu edota lanpostu konkretu batetik datozen fitxategiei lehentasuna eman ere.

Inprimagailua asko erabiltzen den lanpostuetarako programa interesgarria izan daiteke hau.

Ordenadore bidezko itzulpenak

Askotan irakurri ahal izan ditugu gai honi buruzko artikulak, baina orain aztergai dugun *MicroCATS* programaren ezaugarriak nagusien ordenadore pertsonaletarako diseinatua egotea da eta ez adimen artifizialaren aurrerapen handiak dituzten sistemetarako.

Orain dela gutxi arte, itzulpenak egiterakoan ordenadoreak eman zezakeen laguntza bakarra hiztegiak eskaintzea zen, eta posible da gaur egun ere erabiliena edo hedatuena horixe izatea.

Ordenadorean hiztegi batzuk sartu ondoren, nahikoa izango da hizkuntza batean dagoen hitz bat ematea eta zein hiz-

kuntzataraz itzuli nahi dugun esatea (hizkuntza hauek hiztegiaren kontenplaturata egon beharko dute) sartutako hitzaren ordaina lortzeko. Dena den, sistema hauen erantzun-denbora ez da beti nahi bezain azkarra izaten eta askotan inprimatutako hiztegi-taraz jotzen dugu.

Gaur egun sistema berriak garatzen ari dira; testu osoak itzultzeko gai diren programak, etab. Hasiera batean testuak hitzez hitz itzultzen ziren eta ondorioz lortutako itzulpenak ez ziren oso fidagarriak izaten; hitz bat itzultzerakoan testuinguru ere kontuan izan behar bait da. Aurrerapauso bat eman da jadanik eta gaur egun esaldiz esaldi egiten dira itzulpenak.

Lehen aipatutako *MicroCATS*, hauetako sistema bat dugu. Programarekin batera erosten den hiztegiak gain erabiltzaileak bere hiztegi propioak ere sor ditzake; lan konkretu bat burutzeko erabili nahi den hiztegitxoa adibidez.

Testu bat itzultzerakoan bilaketa-sekuentzia, hau da, hiztegi desberdinen arteko lehenetsunak ere defini ditzakegu, sistemak kontsultatzen nondik hasi behar duen jakin dezan. Hala ere, pentsatzekoa da lehenengo itzulpenak ez direla oso bikainak izango, baina horretan datza sistema honen garapena. Ordenadoreak bere gisa egiten dituen itzulpenak gainbegiratu egin beharko dira eta detektatutako akatsak zuzendu. Horrela lortuko da ordenadorearen *ezagumendua*, nolabait esateko, aberastea.

Guzti hori dela eta, sistema hau ez dago oraindik oso hedatua, baina bidea irekita dago eta ikusi egin beharko da zertara irits daitekeen.

MacRecorder musika-programa

MacRecorder Sound System da Berkley-ko *Farallon Computing* etxeak atera duen produktu berriaren izena.

Bai programa pedagogikoak egiterakoan eta bai ordenadore bidez aurkezpenak egin nahi direnean, soinuak edo ahotsak sortu ahal izateak duen garrantziaz ohar gaitzke.

Produktu berri honek, edozein soinu graba dezake era digitalizatuan, ondoren Macintosh-ek daramatzan soinu-sintetizadoreen laguntzaz soinu horiek birsortu ahal izateko.

Soinu hauek beste edozein aplikaziotan erabil daitezke eta bereziki *HyperCard* programan.

Soinu hauek datu-base batean ere sar daitezke, edozein momentutan irudi eta testuekin konbinaturik kontzeptu baten azalpenean erabil daitezkeelarik.

Produktu hau berehala egongo da kalean eta 30.000 pezetatan lortu ahal izango da. ■■■